

GAZTERIA ETA ATERPETXE ATALEKO ARETOAK DOHAINIK ERABILTZEKO ARAUAK

1.- ESKAERAK

- 1.1. Dagokion zentroan aurkeztu behar dira.
- 1.2. Horretarako dagoen inprimakian.
- 1.3. Gutxienez aste bete aurretik, bileretarako izan ezik, egun berean ere eska daitekeela.

2. ARAU OROKORRAK

- 2.1. Areto bat dohainik erabiltzeko baimena emateko, honako irizpide hauek nagusituko dira:
 - * Zentroaren programazioa.
 - * Guneen erabilgarritasuna.
 - * Langileriaren egoera.
 - * Orduategiak.
- 2.2. Araudi honen hirugarren atalean aurreikusten diren erabilpenak bakarrik baimendu ahal izango dira. Beste edozein erabilpen Gazteria, Aterpetxeak eta Giza Eskubideak Atalak aztertu beharko du.
- 2.3. Egingo diren ekitaldiak irekiak eta doakoak izan beharko dira, Gazteria, Aterpetxeak eta Giza Eskubideak Atalak baimendutako salbuespen justifikatuak izan ezik.
- 2.4. Egingo diren ekitaldiak zentroen ordutegietara egokitu beharko dira, eta ezin izango dute zentroen programazioa nahastu edo eragotzi, ez eta zentroko eguneroko funtzionamenduari traba egin ere. Orduategi honetatik kanpo geratzen den guztia, arduradunen iritzien arabera egingo da, langileria eta programazioa kontutan hartuta.
- 2.5. Areto bat erabiltzeko baimena izateak ez du esan nahi eskatzaileak barruan leku pribaturik izan dezakeenik, ezta zentroa bere elkartearen egoitzatzat har dezakeenik ere.

Gainera, baimen hau Hiri Alokairuen Legearen kanpo geratzen da espresuki.

- 2.6. Ekitaldian parte hartuko duten pertsona guztiek hurrengo beteko dutenaren konpromisoa hartzen du eskatzaileak:
- * Udaleko Segurtasun eta Higienari buruzko arauak
 - * Ohiko erabilpen ordutegia
 - * Zentroak zehaztuko dituen sarrera eta erabilpenerako arauak
- 2.7. Eskatzaileak honako ardura hauek hartuko ditu:
- * Aretoa zegoen egoera berean uztearena.
 - * Erabilpenagatik edo mantentzean ardura faltagatik ekitaldian zehar aretoetan gerta daitezkeen kalteena.
- 2.8. Gazteria, Aterpetxeak eta Giza Eskubideak Atalak aretoetan beharrezkoa den edozein aldaketa, eraldaketa edo seinaleztapena alde aurretik baimendu beharko du. Kasu horretan, beti behin-behinekoa edo denborazkoa izan beharko da, eta ezin izango dira zoruetan, hormetan edo sabaietan finkapenak behar dituzten elementuak erabili.
- 2.9. Baimen honek ez du esan nahi zentroko langileak lan horretarako erabiliko direnik, ezta bere ekipamendu teknikoa edo materiala erabiliko denik ere. Ekipamendua dela eta, behar bereziak badaude, eskaeran azaldu beharko dira eta Gazteria, Aterpetxeak eta Giza Eskubideak Atalaren baimena izan beharko dute.
- 2.10. Telefona edo bulegoetako materialak (fax, fotokopiagailua ...) ezingo dira erabili, ezta aretoaren kanpoko beste edozein zerbitzu ere.
- 2.11. Gazteria, Aterpetxeak eta Giza Eskubideak Atalak, ekitaldia burutuko duten pertsonen sarrerak edo irteerak kontrolatzeko, zinpeko zaintzaile baten presentzia beharrezkoa dela irizten badu, horren gastuak eskatzailearen kontura izango dira, baita kontratatu beharko den aparteko langileriarena ere.
- 2.12. Gazteria, Aterpetxeak eta Giza Eskubideak Atala laguntzaile moduan agertuko da baimendutako erabilpenak sortuko duen publizitate guztian.
- 2.13. Gazteria, Aterpetxeak eta Giza Eskubideak Atalak honako eskubideak izango ditu:
- * Aretoaren erabilpenarengatik egindako publizitatea kontrolatzea.
 - * Arau hauek betetzen ez badira, edo instalazioa Gazteria, Aterpetxeak eta Giza Eskubideak Ataleko ekitaldietarako behar denean, baimena deuseztatzea.

3. ARAU ESPEZIFIKOAK

- 3.1. Aretoaren eta bere ekipamenduaren erabilpen puntuala da baimentzen dena.
- 3.2. Ekitaldiak egiteko aretoak:
Irabazi-asmorik gabeko gizarte, kultur eta kirol izaerako taldeei edo elkarteei bakarrik emango zaie baimena.

Ekitaldia, gizarte, kultur edo kirol izaerakoa izan beharko da, eta programazioaren arabera zentroarentzat interesgarria izan beharko du. Haurren eta gazteen sektorean lan egiten duten taldeek izango dute lehentasuna (Etxarriene Auzo Etxea izan ezik).
- 3.3. Bilerak egiteko aretoak:
Pribatuak diren bileretarako, goian aipaturiko taldeez eta elkarteez gain, pertsona fisikoak ere baimendu ahal izango dira, beti ere, bilerak kultur, gizarte edo kirol izaera baldin badu.
- 3.4. Hauteskunde kanpainetarako aretoak:
Hauteskunde kanpainetan bakarrik, eta beti programatuta dauden ekintzen arabera, hauteskundeetako koalizioek edo alderdi politikoek antolaturiko ekintzetarako, zentroetako aretoen erabilpena baimendu ahal izango da.
- 3.5. Alokairuak:
Araudi honetatik kanpo geratzen diren kasuetan alokairua kobratuko da erabilpena egitegatik, indarrean dauden prezio publikoen arabera.